

IKASLEAREN GIDA

NEUROPSIKOLOGIAREN ETA
PSIKOFARMAKOLOGIAREN
OINARRIAK

IKASTURTEA:
2015-2016

TITULAZIOA: PSIKOLOGIAKO GRADUA
IKASTEGIA: PSIKOLOGIA FAKULTATEA
IKASTURTEA: 2015-2016

IKASLEAREN GIDA

1. IRAKASGAIAREN OINARRIZKO DATUAK

IZENA: Neuropsikologiaren eta Psikofarmakologiaren Oinarriak

KODEA: **25092**

IKASTURTEA: 2015-2016

Irakasgai mota= O

(D=adarreko oinarrizkoa; S=beste adar batzuetako oinarrizkoa; Y=gradu amaierako proiektua; **O=nahitaezkoa** edo P=hautazkoa)

ECTS kredituak: 6

MAILA: 3.

LAUHILEKOA: Bigarrena

Aurretiko baldintzak:

Aholkuak: Jokaera-Neurozientziaren Oinarriak eta Psikologia Fisiologikoa irakasgaien ikasketak eginak izatea.

2. IRAKASLEEN OINARRIZKO DATUAK

IZEN ABIZENAK: AMAIA ARREGI AGIRRE

IKASTEGIA/SAILA: Oinarrizko Prozesu Psikologikoak eta Euren Garapena

ARLOA: Psikobiologia

BULEGO ZK.: 3E3

POSTA E.:

amaia.arregi@ehu.es

TEL.: 943 01 5726

IZEN ABIZENAK: AITZIBER AZURMENDI IMAZ

IKASTEGIA/SAILA: Oinarrizko Prozesu Psikologikoak eta Euren Garapena

ARLOA: Psikobiologia

BULEGO ZK.: 3D7

POSTA E.:

aitziber.azurmendi@ehu.es

TEL.: 943 01 5713

IZEN ABIZENAK: GARIKOITZ BEITIA OYARZABAL

IKASTEGIA/SAILA: Oinarrizko Prozesu Psikologikoak eta Euren Garapena

ARLOA: Psikobiologia

BULEGO ZK.: 3E6

POSTA E.:

garikoitz.beitia@ehu.es

TEL.: 943 01 5663

IZEN ABIZENAK: LARRAITZ GARMENDIA REZOLA

IKASTEGIA/SAILA: Oinarrizko Prozesu Psikologikoak eta Euren Garapena

ARLOA: Psikobiologia

BULEGO ZK.: 3E2

POSTA E.: l.garmendia@ehu.es

TEL: 943 01 5725

IZEN ABIZENAK: JOSEBA JAUREGI PIKABEA		
IKASTEGIA/SAILA: Oinarrizko Prozesu Psikologikoak eta Euren Garapena		
ARLOA: Psikobiologia		
BULEGO ZK.: E3.26.2	POSTA E.: joseba.jauregi@ehu.es	TEL: 943 01 5728
IZEN ABIZENAK: IDOIA LECLERCQ GARCIA		
IKASTEGIA/SAILA: Oinarrizko Prozesu Psikologikoak eta Euren Garapena		
ARLOA: Psikobiologia		
BULEGO ZK.: E36	POSTA E.: i.leclercq@ehu.es	TEL: 943 01 5727
IZEN ABIZENAK: MONIKA SALGUEIRO		
IKASTEGIA/SAILA: Oinarrizko Prozesu Psikologikoak eta Euren Garapena		
ARLOA: Psikobiologia		
BULEGO ZK.: E36	POSTA E.: monika.salgueiro@ehu.es	TEL: 943 01 5727

3. IRAKASGAIAREN GAITASUN ZEHATZAK ETA ZEHARKAKOAK

Gaitasunaren zk.:	Gaitasunak
1	Prozesu psikologikoetan nahasteak sortzen dituzten mekanismo neurobiologikoak eta nahaste horiekiko tratamenduak deskribatzeko gai izatea.
2	Patologia neurologiko tipikoenak definitu eta garun dinamikan, jokabidean eta kognitiboki azal daitezken eraginak ezagutzea.
3	Neuroirudien bitartez garun normalak eta hondamena azaltzen dituzten garunen ezaugarri esanguratsuenak ezberdintzea eta neuroirudiek eskaintzen duten garun lesioen kokapena ezagutzea.
4	Psikofarmako mota bakoitzaren profil farmakologikoa, bai terapeutikoa eta bai bigarren mailako efektuena, bereizteko gai izatea.
5	Nahaste psikologiko desberdinentzako gaur egungo tratamendu farmakologiko egokiena ezagutzea.
6	Batetik, informazio zehatza bilatzeko, aztertze eta laburbiltzeko, bestetik, ikus-entzunezko materiala eta software zehatzak erabiliz ariketak ebazteko, eta azkenik, kasuak aztertze eta lortu diren erabakiak adierazteko eta defendatzeko gai izatea.
7	Informe neuropsikologikoa egiteko gai izatea.

4. PROGRAMA

4.1. TEORIAKO PROGRAMA

I. ATALA: PSIKOFARMAKOLOGIAREN OINARRIAK (14 orduko eskola magistralak)

1. Gaia.- Psikofarmakologiari sarrera. (4 gaitasuna lantzen da)

- Psikofarmakologiaren aurrekariak. Definizioa eta helburuak.
- Psikofarmakoen sailkapena.
- Farmakodinamika. Farmakozinetika.

2. Gaia.- Psikofarmakoen talde nagusiak I: antipsikotikoak, antidepresiboak eta animo-egoeraren orekatzaileak. (1, 4 eta 5 gaitasunak lantzen dira)

- Antipsikotikoak: antipsikotiko motak, ekintza mekanismoak. Efektu terapeutikoak eta sekundarioak.
- Antidepresiboak: antidepresibo motak, ekintza mekanismoak. Efektu terapeutikoak eta sekundarioak.
- Animo-egoeraren egonkortzaileak: litioa eta antikonbulsioantekak. Ekintza terapeutikoaren oinarriak.

3. Gaia.- Psikofarmakoen talde nagusiak II: antsiolitikoak eta indartzaile kognitiboak. (1, 4 eta 5 gaitasunak lantzen dira)

- Antsiolitikoak: Bentzodiazepinak. Antsiolitiko serotoninergikoak eta noradrenergikoak. Antsietateak eragindako nahasteen tratamendu farmakologikoa.
- Indartzaile kognitiboak. Alzheimerren eritasuna. Tratamendu farmakologikoa.

II. ATALA: NEUROPSIKOLOGIAREN OINARRIAK (21 ordu eskola magistralak)

4.Gaia.- Neuropsikologiaren sarrera eta Metodologia. (3 eta 7 gaitasunak lantzen dira)

- Definizioa, agerpena eta garapena Neuropsikologian.
- Metodo eta teknikak Neuropsikologian.

5.Gaia.- Neuropsikologia eta funtzio kognitiboak. (1, 2 eta 3 gaitasunak lantzen dira)

- Pertzepzioaren eta Ezagutzaren Neuropsikologia eta bere Nahasteak.
- Oroimenaren Neuropsikologia eta bere Nahasteak.
- Lengoiaren Neuropsikologia eta bere Nahasteak.
- Arreta eta Funtzio Exekutiboaren Neuropsikologia eta bere Nahasteak.

6.Gaia.- Neuropsikologia eta garun-patologia. (1, 2 eta 3 gaitasunak lantzen dira) .

- Garun Patología Baskularra. Patologia Tumoral. Traumatismo Kraneo-Entzefalikoa. Garun Infekzioa. Epilepsia. Neurogarapenaren Nahastea. Patologia Neurodegeneratiboa.

4.2. PRAKTIKETAKO PROGRAMA

I. ATALA: PSIKOFARMAKOLOGIAREN OINARRIAK

Gelako Praktiak (GP):3 ordu; Ordenagailu-praktiak (OP): 3 ordu; Tailer ez industrialak (TA): 4 ordu.

1.- Psikofarmakologiari sarrera (2 ordu)(GP). 1. astea:

Bideo bat ikusi eta testuak irakurriko dira. Ikasleak galde-sorta bat erantzun du bideoan agertutakoa eta testuetan irakurritakoa taldean landu ondoren. Garrantzitsuenak azpimarratzeko eta ikertzaileen emaitzak interpretatzeko, gelan eztabaida bat egongo da. Aztertuko diren gaiak Psikofarmakologiaren kontzeptua eta fokapenak izango dira (Balioa: 0,15). Psikofarmakologiaren Historiari buruz irakurri eta Power-point formatuan aurkezpenak egin. Aurkezpenak kursoaren amaieran entregatuko dira (Balioa: 0,25). Landutako edukiak azterketa finalean ebaluatuko dira (Balioa: 0,4).

Gaitasuna: 6. Zeharreko 1. Gaitasuna eskuratzen laguntzen du: Informazioa modu kritikoan bilatzeko, kudeatzeko, aztertze eta laburtze gai izatea.

2.- Sinapsiaren farmakologia (2 ordu) (OP). 2. eta 3. Astea:

Software bat erabiliz psikofarmakoek nola eragiten duten sinapsiaren hainbat mekanismoetan aztertuko da. Alde garrantzitsuenak azpimarratuko dituen galde-sorta bat beteko da eta azkenik, test bat egingo da ulertu denaren maila jakiteko (Balioa: 0,4).

Gaitasunak 1,4 eta 6.(Zeharreko 1. Gaitasuna eskuratzen laguntzen du: Informazioa modu kritikoan bilatzeko, kudeatzeko, aztertze eta laburtze gai izatea).

3.- Antipsikotiko atipikoak (2 ordu) (TA). 4. Astea:

Irakasleak gomendaturiko bibliografia irakurri ondoren eta talde lanaren bitartez galde-sorta bat beteko da, non antipsikotiko atipikoen alde garrantzitsuenak azpimarratuko diren. Jarraian, talde bakoitzak ekintza-mekanismoari buruz irakasleak aukeraturiko irudi batzuk azalduko ditu. Azkenik, test bat egingo da ulertu denaren maila jakiteko (Balioa: 0,4). Landutako edukia azterketa finalean ebaluatuko da.

Gaitasunak 1,4, 5 eta 6. Zeharreko 1. eta 2.gaitasuna eskuratzen laguntzen du, hau da, batetik, informazioa modu kritikoan bilatzeko, kudeatzeko, aztertze eta laburtze gai izatea, eta bestetik, modu eraginkorrean erlazionatzeko, komunikatzeko eta erabakitze gai izatea, eta banaka nahiz taldean lan egiteko gai izatea.

4.- Antidepressiboak, hipnotikoak, psikoestimulatzailak eta nahaste psikiatrikoen abordatze terapeutikoa.

a) Lehen atala: (2 ordu) (OP eta GP) 5. Astea:

Gaur egungo hainbat antidepressibo berri, hipnotiko eta Arreta Defizita eta Hiperaktibitate nahastean (ADHN) erabiltzen diren farmakoei buruz informazioa bildu, Vademecum-a eta hainbat datu baseak erabiliz. Lana talde txikitan egingo da eta Power-Point formatuan prestatuko diren aurkezpenak hurrengo atalak izango ditu gutxienez:

-Farmakoaren ekintza-mekanismo nagusia eta depresioaren hipotesi biologikoarekin daukan erlazioa (antidepressiboen kasuan).

-Erabilera terapeutikoa.

-Beste antidepressiboekiko duen abantaila.

-Benzodiazepinak hipnotiko gisa erabiltzearen abantailak eta desabantailak.

-Hipnotiko ez-benzodiazepinikoak erabiltzearen abantailak eta desabantailak.

-ADHNaren tratamenduan psikoestimulatzailak erabiltzearen abantailak eta desabantailak

-Informazio iturriak.

b) Bigarren atala: (2 ordu) (TA) 6. Astea:

Ahozko azalpena egingo da. Azalpen honetan nolako aurkezpenak egin diren, ideia nagusiak jasotzen diren, sintesirako gaitasuna, mintzaera eta erabilitako datuen nolako arrazoitzea egin den hartuko da kontuan. Landutako edukia azterketa finalean ebaluatuko da (Balioa: 0,8).

Gaitasunak 1, 4, 5 eta 6. Zeharreko 1. eta 2. gaitasuna eskuratzen laguntzen du, hau da, batetik, informazioa modu kritikoan bilatzeko, kudeatzeko, aztertze eta laburtzeko gai izatea, eta bestetik, modu eraginkorrean erlazionatzeko, komunikatzeko eta erabakitzeko gai izatea, eta banaka nahiz taldean lan egiteko gai izatea.

II. ATALA: NEUROPSIKOLOGIAREN OINARRIAK.

Gelako Praktikak (GP): 7 ordu; Ordenagailu-praktikak (OP): 5 ordu; Tailer ez industrialak (TA): 1 ordu; Mintegiak (M): 2 ordu.

GELAKO PRAKTIKAK (GP)

1. GP: KASU KLINIKOEN BIDEOAREN BEHAKETA ETA EZTABAIDA (2 ordu):

Praktika honetan kasu kliniko ezberdinak ikusteko aukera izango dugu. Bideoaren edukia lesio edo nahaste ezberdinez afektatutako pertsonak koadro etiologiko eta sintoma ezberdinez osatzen da. Bestalde, kasu klinikoek gain Neuropsikologiarekin eta Neurozientziekin erlazionaturiko hainbat eduki interesgarri ikusi ahal izango dira. Praktika honetan ikasleak eskola teorikoetan ikusitako patologiak era errealean eta zehatzean behatzeko aukera emango die bere ezagupena aberastuz eta sakonduz. Horretarako, praktikak bi zati izango ditu: lehendabizikoan, ikasleak bideoa behatzen duen bitartean praktikako koadernoan agertzen diren galderei erantzungo die (praktikako koadernoan kurtso hasieran fotokopistegian eskuragarri izango da). Gero, ikasleak bideoan agertutako hainbat gai eztabaidatzeko aukera izango du. Praktika amaieran azaldutako ezagupenei buruzko kontrola egingo da.

Landutako gaitasunak: 1, 2 eta 6. Zeharreko 1. gaitasuna eskuratzen laguntzen du: Informazioa modu kritikoan bilatzeko, kudeatzeko, aztertze eta laburtzeko gai izatea.

2. GP (2 ordu): Aurreko Gelako Praktikan erabilitako dinamika bera jarraituko da, helburu berdinak lortzeko.

3. GP (2 ordu): Ebaluazio Neuropsikologikoaren inguruan lan egingo da. Ikasleak egoera kognitibo orokorra ebaluatzeko gailu baten ezaugarriak eta erabiltzeko modua ikasiko du. *Roll playing*en dinamika erabiliz, neuropsikologoaren eta pazientearen papera beteko du, praktika klinikoaren eta gailuaren ezaugarrien, balioaren eta mugen inguruan aberasteko aukera izanez. Praktika amaieran azaldutako ezagupenei buruzko kontrola egingo da. *Landutako gaitasunak: 2.*

4. GP eta TA (1 + 1 ordu): Kasu klinikoaren inguruan lan egingo da. Praktika honen helburua: 1. Ikasleak istorio kliniko bat analizatzen ikastea, pazientearen kontsultarako zergatia eta bere lehendabiziko hipotesi klinikoa arrazoitua burutzea da. 2. Praktikan agertuko diren Kasu kliniko bakoitzaren ezaugarri nosologiko, etiologiko eta semiologikoaren inguruan ezagupenean sakontzea. 3. Pazientearen testuinguru indibiduala, soziala, lanekoa eta sendikoa ezagutzea eta bere gabezi neuropsikologikoak bizitzako eguneroko aktibitatekin duen erlazioa eta ondorioak ezagutzea. 4. Pazientearen gabezien pronostiko, tratamendu eta garapenaren inguruan ikastea. 5. Kasu kliniko baten aurkezpena nola egiten den ezagutzea. 6. Txosten neuropsikologikoaren egitura eta ezaugarriak ezagutzea. Praktika amaieran azaldutako ezagupenei buruzko kontrola egingo da.

Landutako gaitasunak: 1, 2, 6 eta 7. Zeharreko 1. gaitasuna eskuratzen laguntzen du: Informazioa modu kritikoan bilatzeko, kudeatzeko, aztertze eta laburtzeko gai izatea.

ORDENAGAILU PRAKTIKAK (OP)

1. OP: NEUROANATOMIAZKO SOFTWARE (ordu 1): Praktika honen helburu nagusiak dira: 1. Garunaren hainbat egitura ezagutzea. 2. Garun gune zehatzak garun funtzio ezberdinekin erlazionatzea, modalitate sentitibo ezberdinen garun guneak, mugimendurako beharrezkoak diren garun guneak, oroimenerako, lengoaiaren funtzionamendurako... garun guneak ezagutzea. 3. Garun lesioek sortarazten dituzten eragin batzuk ezagutzea. Praktika burutzeko Windowserako software bat erabiliko dugu. Ikasleei programaren funtzionamendua ordenagailuaren aurrean era laburrean azalduko zaie. Gero, praktikako koadernoan ikasleak dagozkion galderi erantzungo die. Praktika amaieran azaldutako ezagupenei buruzko kontrola egingo da.

Landutako gaitasunak: 1, 2 eta 6. Zeharreko 1. gaitasuna eskuratzen laguntzen du: Informazioa modu kritikoan bilatzeko, kudeatzeko, aztertze eta laburtze gai izatea.

2. OP: THE WHOLE BRAIN ATLAS (2 ordu): Praktika honen helburu nagusiak dira: 1. Neuroirudiak zer diren ezagutzea. 2. Neuroirudi mota ezberdinak ezagutzea. 3. Egiturazko neuroirudi eta neuroirudi funtzionala ezberdintzen ezagutzea. 4. Garunaren hainbat gune funtzional ezagutzea. 5. Garun lesioek sortarazten dituzten eraginak ezagutzea. 6- Neuroirudien diagnostikorako balioa ezagutzea.

Praktika egiteko THE WHOLE BRAIN ATLAS (Johnson K.A. y Becker J.A.) aplikazio informatikoa erabiliko da. Ikasleei programaren funtzionamendua ordenagailuaren aurrean era laburrean azalduko zaie. Gero, praktikako koadernoan ikasleak dagozkion galderi erantzungo die. Praktika amaieran azaldutako ezagupenei buruzko kontrola egingo da.

Gaitasunak: 1, 2, 3 eta 6..(Zeharreko 1. Gaitasuna eskuratzen laguntzen du: Informazioa modu kritikoan bilatzeko, kudeatzeko, aztertze eta laburtze gai izatea)

3. OP: THE WHOLE BRAIN ATLAS (2 ordu): Aurreko Ordenagailuko Praktikan erabilitako dinamika bera jarraituko da, helburu berdinek lortzeko.

MINTEGIAK (M)

1. M (ordu 1): Praktika honetan alde zurretik landutako kasu klinikoa (4.GP/TA) azaldu eta eztabaidatuko da. Kasu klinikoa erreferentziatzat hartuko da kasuen analisia, aurkezpena eta txosten neuropsikologikoaren garapenerako. Talde ezberdinetan Kasu klinikoa ezberdinak banatuko dira 2. Mintegian kasuaren azalpen sesio bat burutzeko.

Landutako gaitasunak: 1, 2, 6 eta 7. Zeharreko 1. gaitasuna eskuratzen laguntzen du: Informazioa modu kritikoan bilatzeko, kudeatzeko, aztertze eta laburtze gai izatea.

2. M (ordu 1): Praktika honetan talde bakoitzak bere kasu klinikoa alde zurretik landu behar izan du. Praktikan talde bakoitzak beste ikasleen aurrean kasua azaldu eta kasuaren txosten neuropsikologikoa emango du. Aurkezpena eta kasuaren txosten neuropsikologikoa ebaluatua izango da.

Landutako gaitasunak: 1, 2, 6 eta 7. Zeharreko 1. gaitasuna eskuratzen laguntzen du: Informazioa modu kritikoan bilatzeko, kudeatzeko, aztertze eta laburtze gai izatea.

5.- IRAKASGAIKO PLANGINTZAREN KRONOGRAMA (*)

Astea	M (35 or)	GP (10 or)	OP (8 or)	TA (5 or)	M (2 or)	Ord EP	Parzial	Ematek
1	M1=3 PF	GP1=2 GP2=2 PF				3		
2	M1=3 PF		OP1=2 OP3=2 PF			4		
3	M1=3 PF		OP2=2 OP4=2 PF			4		
4	M1=3 PF			TA1=2 TA2=2 PF		5		
5	M1=3 PF/NP		OP1=1 OP2=1 OP3=1 OP4=1 PF			4		
6	M1=3 NP	GP1=1 GP2=1 PF				5		
7	M1=3 NP		OP1=1 OP2=1 OP3=1 OP4=1 NP	TA1=2 TA2=2 PF		4		X
8	M1=3 NP	GP1=2 GP2=2 NP				4		
9	M1=3 NP		OP1=2 OP3=2 NP			4	X	
10	M1=3 NP		OP2=2 OP4=2 NP			4		
11	---	---	---	---	---	0		
12	M1=3 NP	GP1=2 GP2=2 NP				4		
13	M1=2 NP	GP1=2 GP2=2 NP				4		
14		GP1=1 GP2=1 NP		TA1=1 TA2=1 NP		4		
15			OP1=2 OP3=2 NP		M1=1 M2=1 M3=1 M4=1 NP	4		
16			OP2=2 OP4=2 NP		M1=1 M2=1 M3=1 M4=1 NP	4		X
	M1=35	GP1=10 GP2=10	OP1=8 OP3=8 OP2=8 OP4=8	TA1=5 TA2=5	M1=2 M2=2 M3=2 M4=2			

*Kronograma orokorra. Aldaketa txikiak egon daitezke

NP: Neuropsikologia

PF: Psikofarmakologia

6. EBALUAZIO SISTEMA (TEORIRAKO ETA PRAKTIKETARAKO)

Psikofarmakologiaren zatiari dagokion nota ikasgai osoaren % 40a izango da.

Psikofarmakologia zatiaren kalifikazio finala bi atalen batuketa izango da: teorikoa (% 80) eta praktikoa (% 20).

-Azterketa teorikoa (% 80): eduki teorikarekin eta praktiketako edukiekin erlazionaturiko test moduko galderez ostua egongo da.

-Atal praktikoa (% 20) kurtsoaren zehar Gelako praktketan, Ordenagailu-praktketan eta Tailerretan egin diren lan desberdinen bitartez lortu daiteke.

Neuropsikologiaren zatiari dagokion nota ikasgai osoaren % 60a izango da.

Neuropsikologia zatiaren kalifikazio finala bi atalen batuketa izango da: teorikoa (% 80) eta praktikoa (% 20).

-Azterketa teorikoa (% 80): eduki teorikarekin eta praktiketako edukiekin erlazionaturiko test moduko galderez ostua egongo da.

-Atal praktikoa (% 20) kurtsoaren zehar Gelako praktketan, Ordenagailu-praktketan, Tailerretan eta Mintegietan egin diren lan desberdinen bitartez lortu daiteke.

Ikasleek irakasgaiaren azterketa partzial bat egiteko aukera izango dute. Azterketak Psikofarmakologiaren eduki osoa bere gain hartuko du. Irakasgaiaren atal hori liberatzeko, 5 bat lortu beharko da (teoria+praktika). Neuropsikologia atalaren azterketa, irakasgaiaren azterketa finalean egingo da.

Kurtsoaren zehar neuropsikologiako praktika presentzialak egin ez dituzten ikasleek praktiken azterketa amaieran egin dezakete. Azterketari begira, ikasleak praktika presentzialetan landu diren edukiak jorratu ditzake praktikako koaderno eta internet erabilita (eGelan praktikak nola prestatu azalduko da).

Irakasgaiaren azterketa finala: Ikasleek irakasgaiaren bi ataletara (Neuropsikologia eta Psikofarmakologia) aurkezteko aukera izango dute. Kasu horretan, 2 atalen arteko batez besteko haztatua egin ahal izateko gutxienez 3ko nota minimoa atera behar da atalaren azterketa teorikoan (8 puntuko).

OHARRA:

Atal bakarra gaindituz gero nota gorde egongo da ikasturte bereko hurrengo deialdirako. Beraz, ikasleak gainditu ez duen atalera soilik aurkezteko aukera izango du.

Bestalde, ikasgaiaren deialdiari uko egiteko ikaslea azterketara ez aurkeztearekin aski izango da.

7. BIBLIOGRAFIA

NEUROPSICOLOGIAREN OINARRIAK

- Ardila, A. y Rosselli, M. (2007). *Neuropsicología Clínica*. Mexico: Manual Moderno.
- Jodar, M. (2013) *Neuropsicología*. Barcelona: UOC.
- Junqué, C. y Barroso, J. J. (2009). *Manual de Neuropsicología*. Madrid: Editorial Síntesis.
- Junqué, C. y Barroso, J. J. (1995). *Neuropsicología*. Madrid: Editorial Síntesis.
- Kolb, B. (2006). *Fundamentos de Neuropsicología Humana. 5ª Edición*. Madrid: Editorial Médica Panamericana.
- Peña-Casanova, J. (2007). *Neurología de la Conducta y Neuropsicología*. Madrid: Editorial Médica Panamericana.
- Pérez-García M. (coordinador) (2009). *Manual de Neuropsicología Clínica*. Madrid: Ediciones Pirámide.
- Román-Lapuente, F.; del Pino Sánchez-López, M. y Rabadán-Pardo, M.J. (2012). *Tratado de Neuropsicología Clínica. Aplicaciones Clínicas de la Teoría y la Evaluación Neurocognitiva. Estudio de Casos y Autoevaluaciones*. Online.
- Tirapu, J., Rios, M. y Maestú, F. (2011). *Manual de Neuropsicología. 2ª Edición*. Barcelona: Viguera.

PSICOFARMACOLOGIAREN OINARRIAK

- Florez, J. Armijo, J.A. Mediavilla, A. (2008). *Farmacología humana. 5ª edición*. Barcelona: Elsevier.
- Gilbert-Rahola, J. (2012). *Lo que siempre quiso saber de los psicofármacos y nunca se atrevió a preguntar. 4ª edición*. Aula Médica.
- Lorenzo, P., Moreno, A., Lizasoain, I., Leza, J.C., Moro, M.A. y Portoles, A., Velásquez. (2009). *Farmacología básica y clínica. 18ª Ed.* Panamericana.
- Salazar Vallejo, M., Peralta Rodrigo, C., Pastor Ruiz, F.J. (ed.) (2011). *Manual de Psicofarmacología. 2ª edición*. Buenos Aires: Médica Panamericana.
- Salazar, M., Peralta, C., Pastor, J. (2009). *Tratado de psicofarmacología. Bases y aplicación*. Madrid: Médica Panamericana.
- Schatzberg A.F. y Nemeroff C.B. (2006). *Tratado de psicofarmacología*. Barcelona: Masson-Elsevier.
- Schatzberg A.F. Cole J.O., Debattista, C. (2005). *Manual de Psicofarmacología Clínica*. Barcelona: Ars
- Schatzberg A.F. Cole J.O., Debattista, C. (2010). *Manual of clinical Psychopharmacology*. Adington: American Psychiatric Publishing.
- Stahl.S.M. (2002). *Psicofarmacología esencial: bases neurocientíficas y aplicaciones clínicas. 2ª edición*. Barcelona: Ariel.
- Stahl.S.M. (2010). *Psicofarmacología esencial: bases neurocientíficas y aplicaciones clínicas*. Madrid: Grupo Aula Médica.
- Wikinski. S y Jufe, G. (2005). *El tratamiento farmacológico en psiquiatría*. Panamericana.

OSAGARRIA:

NEUROPSICOLOGIAREN OINARRIAK

- Damasio, A. (2006). *El error de Desacartes*. Edit. Crítica.
- Dennis Rains G. (2004). *Principios de Neuropsicología Humana*. México: McGraw Hill.
- Gil R., (2007). *Neuropsicología. 4ª Edición*. Barcelona: Elsevier Masson.
- Goldber, E. (2002). *El Cerebro Ejecutivo*. Barcelona: Drakontos Crítica.
- Junqué, C.; Bruna, O. y Mataró, M. (2003). *Traumatismos Craneoencefálicos. Un enfoque desde la Neuropsicología y la Logopedia*. Barcelona: Masson.
- León-Carrión, J. (1995). *Manual de Neuropsicología Humana*. Edit. Siglo Veintiuno.
- Lezak, M.D. (2012). *Neuropsychological Assesment*. Oxford University Press.
- Maestú, F.; Rios, M. y Cabestrero, R. (2008). *Neuroimagen. Técnicas y procesos Cognitivos*. Barcelona:

Elsevier Masson.

- Ramachandran, V.S. y Blakeslee, S. (1999). *Fantasmas en el cerebro: Los misterios de la mente humana al descubierto*. Edit. Debate.
- Ramachandran, V.S. (2012). *Lo que el cerebro nos dice: Los misterios de la mente humana al descubierto*. Edit. Paidós.
- Sacks, O. (2005). *El hombre que confundió a su mujer con un sombrero*. Edit. Anagrama.
- Sacks, O. (2002). *Un antropólogo en Marte: Siete relatos paradójicos*. Edit. Anagrama.
- Tirapu, J. y cols (Edit) (2012). *Neuropsicología de la corteza prefrontal y las funciones ejecutivas*. Barcelona: Viguera.

PSICOFARMACOLOGÍA EN OINARRIAK

- Adan, A., Prat, G. (2010). *Psicofarmacología. De los mecanismos de acción a las estrategias terapéuticas*. Barcelona: Marge Médica Books.
- Aguilar, M.A., Manzanedo, C., Rodríguez-Arias, M., Miñarro, J. (2010). *Psicofarmacología para estudiantes de Psicología*. Valencia: Cristóbal Serrano.
- Alberca-Serrano R., López-Pousa S. (2011). *Enfermedad de Alzheimer y otras demencias. 4ª edición*. Madrid: Médica Panamericana.
- AMERICAN PSYCHIATRIC ASSOCIATION (2004). *Guías clínicas para el tratamiento de los trastornos psiquiátricos*. Ars Médica.
- Azanza, J.R. (2009). *Guía práctica de farmacología del SNC*. Laboratorios Pfizer.
- Bravo, M.F. (2002) *Psicofarmacología para psicólogos*. Madrid: Síntesis.
- Chinchilla, A. (2008) *La depresión y sus máscaras*. Madrid: Médica Panamericana.
- Fernández Teruel A. (2008). *Farmacología de la conducta. De los psicofármacos a las terapias psicológicas*. Barcelona: UAB.
- Fernández Teruel A. (2010). *Psicofarmacología. Terapias psicológicas y tratamientos combinados (1). Utilidad comparada en los trastornos mentales*. Barcelona: UOC.
- Gabbard, G.O. (2008). *Tratamientos de los trastornos psiquiátricos. Tomo I*. Barcelona: Ars Médica.
- Gabbard, G.O. (2009). *Tratamientos de los trastornos psiquiátricos. Tomo II*. Barcelona: Ars Médica.
- López-Muñoz, F. Alamo, C. (2007). *Historia de la Psicofarmacología. Tomo I: de los orígenes a la medicina científica: sobre los pilares biológicos del nacimiento de la psicofarmacología*. Madrid: Médica Panamericana.
- López-Muñoz, F. Alamo, C. (2007). *Historia de la Psicofarmacología. Tomo II: la revolución de la psicofarmacología: sobre el descubrimiento y desarrollo de los psicofármacos*. Madrid: Médica Panamericana.
- López-Muñoz, F. Alamo, C. (2007). *Historia de la Psicofarmacología. Tomo III: La consolidación de la psicofarmacología como disciplina científica: aspectos éticos-legales y perspectivas de futuro*. Madrid: Médica Panamericana.
- Pies, R.W. (2005). *Handbook of essential psychopharmacology*. American Psychiatric.
- Stolerman, I.P. (2010) *Encyclopedia of Psychopharmacology*. New York: Springer.
- Stahl, S.M. (2010). *Guía del prescriptor*. Madrid: Aula Médica.
- Stein, B.J. (2005). *Manual clínico de los trastornos de ansiedad*. Ars Médica.
- Vázquez-Barquero, J.L., Herrán Gómez, A. (ed.) (2007). *Las fases iniciales de las enfermedades mentales. Trastornos de ansiedad*. Barcelona: Masson.
- Vázquez-Barquero, J.L., Ayuso Mateos, J.L. Artal Simón J. (ed.) (2008). *Las fases iniciales de las enfermedades mentales. Los trastornos depresivos*. Barcelona: Masson.
- Vieta, E. (2009). *Novedades en el tratamiento del trastorno bipolar*. Barcelona: Ediciones Médicas
- Weiner, M.F. y Lipton, A.M. (2005). *Demencias*. Masson.

ALDIZKARIAK

Investigación y Ciencia. Prensa Científica. Barcelona. Mente y Cerebro. Prensa Científica. Barcelona.

INTERNETeko BALIABIDEAK:

<http://www.med.harvard.edu/AANLIB/home.html>

www.neurologia.com

<http://archivosdepsiquiatria.es/>

www.psiquiatria.com

www.jano.es

www.eutimia.com

<http://www.revneurol.com/index.php>

<http://neurociencias.udea.edu.co/revista/?action=present>

eGela PLATAFORMA

eGela plataformaren bitartez ikasleak eskura izango ditu klase orduan erabiltzen diren aurkezpenak eta irakasgaiari buruzko informazioa jaso ahal izango du. Irakasgaiari buruzko edozein azalpen edo oharpen bat egin beharrez gero plataforma erabiliko da.

8. TUTORETZEN ORDUTEGIA:

Tutoretza ordutegia honako baliabide edo plataformetan aurki daiteke:

-eGela plataforma

-GAUR plataforma